

## HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA

**DATA:** 2016/05/02 **ORDUA:** 19:00-21:00

**LEKUA:** TOPAGUNEA (KULTUR ETXEA)


**PARTE-HARTZAILEAK:** 20 LAGUN (9 EMAKUMEZKOAK; 11 GIZONEZKOAK)

**HERRITARRAK:** Aitor Errasti, Elena Basagoitia, Garikoitz Murua, Imanol Zubelzu, Irene Larraza, Itziar Dolado, Ivan Asenjo, Javier Arana, Jokin Aldazabal, Joserra Zalakain, Katixa Perea, Kike Amonarriz, Maria Mendiluce, Mertxe Amiano, Mireia Roca, Moira Eceiza, Pablo Alberdi, Tarana Karim, Tomas Plazaola, Xabier Goenaga.

**UDALA:** Garikoitz Lekuona (teknikaria) eta Iñigo Muñoz (teknikaria)

**LAGUNTZA TEKNIKOA:** Ana López, Aiala Zubieta eta Eider Larrañaga (Enea)

**DISEINU ENPRESA:** Jon Gaztañaga eta Elena Segurola (DOSGES)



### GAI ZERREDA

1. Saioaren aurkezpena
2. Herritarren parte-hartze prozesua gidatuko dituzten irizpide eta konpromisoak adostea
3. Mahai sektorialak: egituraketa proposamena eta antolaketa
4. Ikuspegiaren lanketa
5. Zein izan jarriko diogu prozesuari? Prozesuaren izenaren inguruko lanketa
6. Saioa balorazioa eta amaiera

---

# LABURPENA

## 1. SAIOAREN AURKEZPENA

Garikoitz Lekuona, Udaleko teknikariak bertaratutakoei ongi etorria eman die.

Saioan DOSGES komunikazio grafikoko enpresako Jon Gaztañaga eta Elena Segurola presente daude ere. Talde Sustatzaileari gogorarazi zaio Aurre Fasearen hiru helburuetako bat martxan jarri asmo den prozesuaren ikur komunikatiboa lantzea dela. Hau da, gobernantza eredu berri hau aurrera eramateko prozesuari izen bat jartzea. Izen horren aukeraketan laguntzeko asmoz gonbidatuak izan dira DOSGESko kideak.

Era berean, jakinarazi zaie Tolosako Udala Tolosa herriari egokitzen den ikur komunikatiboa lantzen ari dela, hau da, Tolosa herri bezala aintzat hartu eta kanpora begirako erabilera izango duen ikur komunikatiboa. Hori dela eta, kontuan hartuz Talde Sustatzailea etorkizuneko herri bisioa lantzen aritu dela eta bertan jasotako ekarpenak interesgarriak direla herriarentzako ikur komunikatiboa lantzeko, jakinarazi zaie bisioaren inguruko beren ekarpenak aintzat hartuko direla ikur komunikatiboa lantzeko.

Aldiz, argitu zaie herri osorako balio duen ikur komunikatibo horren lanketa eta zein izan behar duen erabakitzea ez dela Talde Sustatzailearen egin beharrekoa, baizik eta beraien ardura gobernantza eredu berri honen baitan martxan jarri den prozesuari soilik dagokion ikur komunikatiboa erabakitzea.

Ondoren, prozesuaren inguruko aurkezpen laburra egiten da, orain arte burutu diren lanen eta datozen hilabetetan burutuko diren lan eta bileren laburpena eginez. Bilera honekin diseinu fasearen testuinguruan aurreikusitako helburuak beteko dira, fase honi amaiera emanez. Honela, fase honi lotutako talde sustatzailearen bilerak amaituta, parte hartzaileei mahai sektorialetan eta hurrengo fasetan burutuko diren talde sustatzailearen bileretan parte hartzeko gonbitea luzatu die.

Anak gaurko saioaren helburu nagusiak azaldu ditu:

- Prozesu honi lotutako herritarren parte-hartzearen irizpideak adostea, aurreko astean hasitako lanari jarraipena emanez.
- Mahai sektorialen egituraketa proposamena eta bakoitzean landuko diren gaiak adostea
- Aurreko 2 saioetan landu den aurre-ikuspegiaren lanketa. Mahai sektorial bakoitzarekin lotutako aurre-ikuspegiaren lanketa egitea.

## 2. HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA GIDATUKO DITUZTEN IRIZPIDE ETA KONPROMISOAK ADOSTEA

Aurreko saioan hasitako lanari jarraipena emanez, prozesu hau gidatuko duen parte-hartzeari lotutako irizpideen eztabaida burutu da. Irizpide hauek politikariek osatutako Jarraipen Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu dira baita ere, bertan zenbait ekarpen egin zirelarik.

Honela, gaurko saioan herritarrek aurreko saioan jasotako ekarpenak eta Jarraipen Batzordean egindako ekarpenak aurkeztu dira baita ere.

A. **KOORDINAZIOA ETA ANTOLAKUNTZA:** atal honetan jasotako 4 irizpideak egokitzen jo dira.

B. **PARTE-HARTZAILEAK:**

7. **Asistentzia konpromisoa:** gutxieneko asistentzia kuantifikatzearen behararen inguruan hitz egin da. Ez da beharrezkotzat jo beraz kuantifikatzea eta zegoen bezala utzi da.

10. **Prozesuaren irekitze maila:** deialdi irekiei buruz galdetuta, mahai sektorialen deialdiak, talde sustatzaileko partaideei eta gai konkretuetan lan egiten diren eragile/erakundeei bidaltzeaz gain, prentsa eta udal web zein sare sozialen bidez ere zabalduko direla argitu da. Hauetan bilera bakoitzean landuko diren gaiak eta helburuak zehaztuko badira ere, ez da prozesu osoari buruzko informazioa ematea aurreikusten. Hala ere, orain arte burututako lanaren bisualizazioa egitea beharrezkotzat jo dute, talde sustatzailearen eskura soilik geratu ez dadin.

C. **METODOLOGIA:**

11. **Ekarpenak egiteko bidea:** aurreko saioan jasotako ekarpenari erantzunez, non ekarpenak egiteko espazioa gehiago zabaltzea proposatzen zen, erredakzioa berria proposatu eta ontzat eman da: *“Ekarpenak egiteko aurreko espazioez gain, udalerriko web, sare sozialen eta bestelako tresnen bidezko parte-hartze bideak eskuragarri egongo dira. Hala ere, azken hauen bidez jasotako ekarpenak talde sustatzailearekin egiaztatuko dira.”*

12. **Partaidetzaren izaera eta 14. Erabakiak hartzea (Gehiengoa/Adostasuna):** Bi arlo hauen inguruko eztabaida sortu da. Herritarren kezka nagusia beraien ekarpenek azken emaitzan izango duten isla eta talka egoeren aurrean zer egingo den ezagutzea eta argitzea izan da. Aldaketa erreala emateko eta orain arte burutu diren beste parte-hartze prozesuetatik desberdintzeko, beharrezkotzat jotzen dute Udalak herritarren saioetan lantzen diren proposamenak kontutan hartzeko konpromisoa hartzea.

Erabakiak hartzeari dagokionez (14. Irizpidea), ondorengoa gehitu da: *“Ez adostasunak dauden kasuetan guztiok konpartitzen dituzten puntuetara iristen saiatzeari emango zaio lehentasuna, baina lortu ezean gerta daitezkeen talkak konpontzeko bide egokienak aztertzeko konpromisoa hartuko da kasuan kasu”.*

Prozesu konkretu honekin lotura duen parte-hartze prozesuaz gain, udalerriko beste prozesuak arautzeko edo arautegi orokor bat adosteko beharra aipatu da baita ere.

Udal teknikariek gogorarazi dute prozesu honen helburu nagusia, etorkizuneko plangintza adostu bat lantzeaz gain, politika publikoetan herritarren eta eragileen parte hartzea sistematizatzea eta politika publikoen gauzatze mailaren jarraipena eta ebaluaketa egin ahal izateko mekanismoak ezartzea dela.

Hau guztia udal politikagintzan txertatzea aurrerapauso handia da eta horregatik, lehenetsiko dira kontsentsuaren bidetik, udal ordezkariak, udal teknikariak eta herritarrak adostasunetik eta elkarlanetik landutako gaiak.

Hau guztia horrela izanik, Plan Estrategikoaren baitan adostasun maila handiena lortzen duten helburuak eta proiektuak jasoko dira. Hala ere Plan Estrategikoak udal arlo guztiak landuko ditu eta hauetarako irizpide orokorrak finkatu.

Honek ez du suposatuko, inolaz ere, plangintza estrategikoaren baitan proiekturen bat ez jasotzeak bere lanketa eta gauzatzea ezinezkoa bilakatzen denik. Plangintzatik kanpo ere bestelako proiektuak landu eta, bere kasuan, parte hartzearen bidez aberastu eta aurrera eraman ahalko dira.

Guzti honegatik, eta beti ere ulertuz esku artean dugun prozesu honen helburua ahalik eta adostasun handieneko plangintza estrategiko bat lortzea dela, komenigarri ikusten da epe labur-ertain batean eta ikuspegi orokor batekin, parte hartzea eta herri galdeketak arautuko dituen erregelamendu bat lantzeko prozesua zabaltzea.

D. EMAITZAK: atal honetan jasotako 2 irizpideak egokitzen jo dira.

### 3. MAHAI SEKTORIALAK: EGITURAKETA PROPOSAMENA ETA ANTOLAKETA

Plan berri bat osatzeko Diagnostikoa eta Ekintza Plana egingo dira. Honela, Mahai sektorialetan fase hauekin lotutako gai konkrituak landuko dira.

Mahai sektorialetan talde sustatzaileko partaideek parte-hartzeko aukera izango dute, arlo konkrituetan lan egiten duten eragile eta erakundeek, baita interesa duen edozein pertsonak ere.

Aurreko bileretan talde-sustatzailean interes handien duten gaiak identifikatu dira eta horren arabera 3 mahai-sektorial eta bakoitzean lantzeko gaiak proposatu dira:

- **Pertsonak:** bertan OSASUNA, BIZIKIDETZA / KOHESIOA, ONGIZATEA, BIZIKALITATEA, 3.ADINA, GAZTEAK, ETORKINAK, KIROLA eta ETXEBIZITZA gaiak landuko lirateke.
- **Kultura eta hezkuntza:** EUSKARA, KULTURARTEKOTASUNA, HEZKUNTZA, KULTURA (ekipamenduak, eskaintza,...), ELKARTEAK.


- **Ekonomia eta ingurunea:** ENPLEGUA/ BALDINTZA SOZIEKONOMIKO DUINAK, EKINTZAILETZA, HIRIGINTZA, MERKATARITZA, NATUR BALIABIDEAK (ura, energia, hondakinak), INGURUMEN NATURALA, MUGIKORTASUNA.

Badaude zenbait gai mahai konkretuetan kokatu ez direnak, beraien izaera zabalagoa delako eta mahai desberdinetan modu transbertselean landuko direlako, adibidez Berdintasuna eta Parte-hartzea.

Ekonomia eta ingurunea mahaia zabalegia dela ikusi da eta bi mahaitan banatzea adostu da: **Ekonomia eta bestalde, Ingurunea eta Lurralde antolaketa.**

Bestalde, Pertsonak mahaian lantzen diren gaiak oso zabalak eta ugariak direla aipatu da. Hala ere, barau banatzeko zailtasunak ikusi dira baita ere, bertan jasotzen diren gaiak beraien artean erlazioa baitute. Honela, printzipioz mahai honela mantentzea adostu da, beharrezkoa izanez gero bi azpi-mahai burutuz.

Mahai bakoitzean landuko diren gaien berrantolaketa eta gai berrien identifikazioa egin da baita ere:



#### 4. IKUSPEGIAREN LANKETA

Mahai sektorialak eta bakoitzean landuko diren gaiak adostuta, bakoitza erosen sentitzen den mahaian jarri da, mahai bakoitzak osatuko diren Mahai sektorial bana irudikatzen duelarik.

Aurreko saioan hasitako ikuspegiaren lanketari jarraipena emanez eta gai/arlo bakoitzaren inguruan osatu zituzten esaldiak eta egindako priorizazioa oinarri hartuz, mahai bakoitzaren norabidea jasotzen duen aurre-ikuspegia proposatu da. Aurre-ikuspegi hau aurrerago berriz hartu eta osatuko da, hausnarketa fasean, diagnostikoa osatu eta informazio gehiago eskura izanda herritarren, teknikarien eta politikarien ekarpenak jasoz.

Taldeka, mahai sektorial bakoitzerako aurre-ikuspegiarekin ados dauden ezagutzea eta kontzeptu, ideia edo gairen bat kendu, gehitu edo osatzea eskatu zaie.

Ekonomia eta Ingurunea hasieran elkartuta bazeuden ere, aurre-ikuspenean bi atalak banatuta azaltzen ziren. Mahai honetan bi gaiak azertu dituzte. **Horiz** markatu dira taldean jaso diren ideia, gai edo kontzeptuak. Bestalde, kentzea proposatu dutena ezabatua agertzen da.

##### **Pertsonak:**

Tolosa, Tolosar guztion ongizatea eta **osasuna** bermatuko duen herria, **arlo guztietan kohesionatua** egongo da, bizimodu osasungarria eta **kalitatezkoa** bultzatuko duena, baita bizimodu aktiboa eta **parte-hartzailea** ere, balore guzti hauek balioan jarriko dituen.  
**Bizi-kalitatea** ere jaso beharko luke.

##### **Kultura eta hezkuntza:**

Tolosa aniztazunean eraikitako herri **bizia**, jakintsua eta **ekintzailea** da. Ingurua eta bere burua ongi ezagutzen duen kultur anitzeko herria, **euskara ardatz izanik** guztiok **gustura** eta eroso sentitzea ahalbidetuko duena.

##### **Ekonomia:**

Tolosak saretutako ekonomia aktiboa izango du, berezkoak dituen baliabideak indartuz eta errespetatuz, egitasmo berriei bultzada emango diena; sektore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, **zerbitzuak elementu traktore izanik**, garapen ekonomiko iraunkorra bermatu eta eskualdiko mugetarik haratago zabalduaz.

##### **Ingurunea eta lurralde antolaketa:**

Tolosa herri iraunkor eredugarria izango da, orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku izango den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.

**Hiri eredu alternatiborako trantsizioa**

## 5. ZEIN IZEN JARRIKO DIOGU PROZESUARI?

Denbora falta dela eta ez da izenaren inguruko lanketarik egin, eta komunikazio enpresakoek gaurko saioan jasotakoarekin izen proposamen desberdinak egingo dituztela aipatu da. Hauek posta elektronikoko bidez helaraziko zaizkie talde-sustatzaileko partaideei aukera desberdinak ezagutu ditzaten. Honen inguruko beraien iritzia jasotzeko saio berri bat egin edo mail bidez egitearen inguruan galdetuta, mail bidez egitea adostu da.

## 6. SAIOAREN BALORAZIOA ETA AMAIERA

Gaurko saioarekin Talde sustatzailearen 3 bileraz osatuta egon den diseinu faseari amaiera ematen zaionez, balorazioa fase guztia bere osotasunean hartuz egin da. Hiru galdera egin zaizkie, BAI/ EZ erantzun zezaten eta bakoitzean, libre idazteko tokia utziz.

1. Landu diren parte-hartze irizpideak prozesuaren garapen egokia errazteko abiapuntu zuzena direla uste al duzu?
2. Mahai-sektorialen egituraketak Tolosako etorkinerako esanguratsuenak diren gaiak jorratzea baimenduko duela uste al duzu?
3. Zure ekarpenak kontuan hartuak izan direla uste al duzu?

Galdetegia erantzun duen gehiengo zabal batek baiezkoa erantzun die hiru galderari. Soilik pertsona bakar batek uste du mahai sektorialen egituraketak ez duela baimenduko Tolosako etorkizunerako esanguratsuenak diren gaiak jorratzea.

Egin diren komentarioek prozesuaren hasieran egoteak sortzen dituen zalantzak islatzen dituzte. Etorkizunerako erronka nagusiak mahaien funtzionamendua eta guztion arteko adostasunak lortzea direla aipatzen da.



Parte-hartzaile guztiei eskerrak emanez amaitu da saioa.